



4.11. Ehungintzako produktuak

1. Alderdi orokorrak

1.1. Zer hartzen du barruan

Erakunde publikoek ehun-produktu ugari erosten dute, batik bat hiru erabilera hauek emateko:

- Hainbat langile publiko uniformeaz eta oinetakoz hornitzeko. Besteak beste, trajeak, batak, buzoak, brusak, alkandorak, jakak, txalekoak, poloak, txanoak, gonak, esku-larruak, zapatak, galtzerdiak, gorbatak, eta abar egiten dira. Horien erabilera arrunta edo espezializatua (polizia, suhiltzaileak edo basozainak) izan daiteke.
- Zentro publikoak (bulegoak, ikastetxeak, laguntza-zentroak, museoak...) hornitzeko gortinak, maindireak, toallak, ohe-estalkiak, pijamak, burkoak, toldoak, alfonbrak, eta abar, hau da, barnealderako ehunak.
- Kantitate txikiagoan, noizbehinkako ekitaldietarako ehun-produktuak eskatzen ditu administrazioak: elastikoak, zapiak, motxilak, poltsak, eta abar.

Atal honetan, produktu horietarako guztietarako irizpideak eskaintzen dira (horma eta lurzoruetako estaldurak izan ezik). Ehun-jantziarako irizpideak berdintsuak izaki, eta, aldi berean, oinetakoetarako irizpideetatik bereizten direnez, bi ataletan banatu dira ehun-produktuak eta oinetakoak.

1.2. Non gaude

Administrazio publikoaren ehun-produktuen zuzeneko eskaria jaitsi egin da, zerbitzu asko kanpoan kontratatzen direlako, hala nola garbiketa (bai eraikinetakoa bai hirikoa), lorezaintza, jagoletza, eta abar. Hala ere, oraindik ehun-produktu ugari kontratatzen ditu. Uniformeak, laneko jantziak eta barnealderako ehunak aldiro kontratatzen dira; bestelako produktuak —osagariak edo unean unekoak— berriz, noizean behin.

Produktu horietarako aurrekontua hainbat partidatan banatzen da, departamentuka, eta, beraz, zaila da zehaztea kontratazio-mota horretara zenbat diru bideratzen den. Osasun-eskumenak dituzten administrazioek edo polizia-arduradunek diru gehiago izaten dute.

Produktu-multzo hori aintzat hartzeko arrazoi nagusia ez da administrazioan duen garrantzi ekonomikoa, baizik eta ehun-produktuen eskarian kontratazio-publikoak duen munta (batez ere laneko jantziena) eta haien produkzioak ingurumenean eta gizartean duen eragina. Ingurumen-inpaktua hainbat jardueratan gertatzen da: zuntzaren fabrikazioan eta prestaketan, hariaren fabrikazioan, ehunaren ekoizpenean, aldez aurreko tratamenduan, tindaketan, estampa-



zioan, akabera eta aprestuan, estalketa eta laminazioan eta, azkenik, piezaren garbiketa eta lehorketan.

Ehun-produktuen ekoizpenean ingurumen-inpaktu hauek gertatzen dira:

- Zuntzen fabrikazioak eragindakoak. Zuntz naturalak (kotoia, lihoa...), monolaborantza-ustiapen intentsiboetan landatu ohi dira, eta, horietan erabiltzen den ongarri eta biozida kimikoen kopuru handiak kalte egiten die osasunari eta ingurumenari. Zuntz sintetikoak industria petrokimikoa dute jatorri, eta ondorio kaltegarriak ditu petrolio ekoizpen-oinarri izateak eta haien formulazioan beste produktu kimiko batzuk erabiltzeak.
- Ingurumenarentzat nahiz giza osasunarentzat kaltegarriak diren substantziak erabiltzea, bai jantzien ekoizpenean bai ehunen tindaketa eta zuriketean.
- Ur-kontsumo handia, hondakin-urak —kutsadura handia eragiten dutenak— sortzen dituelako, eta, horiek tratatzean arazketa-lohi toxikoak sortzen direlako.
- Errekuntza-prozesuetan atmosferara egiten diren emisioak eta disolbatzaile organiko kaltegarrien (sektoreko langileentzat, batez ere) erabilera.

EHUNGINTZAREN ALDERDI SOZIALA

Globalizazioaren ondorioz, garapen bidean dauden herrialdeetara eraman dute enpresek ekoizpena. Herrialde horietan merkeagoa da eskulana, eta ingurumen- eta gizarte-legeria, berriz, bigunagoa.

Askotan, laneko legeriarik ez dago Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) zehaztutako langileen funtsezko eskubideak bermatzeko, edo legea betetzeko baliabiderik ez da ematen. Gainera, ekoizpena ETEei azpikontratatzan zaie. Ekoizpenean, hau bermatu behar dute enpresek: lan beharturik edo haurren lanik ez dagoela; askatasun sindikala onartzen dela; gizonen eta emakumeen soldata berdinak jasotzen dituztela, laneko osasunean gutxieneko bermeak betetzen direla...¹.

Alderdi horiek garrantzitsuak direnez, eta administrazioaren eragin-ahalmena dela-eta, ehun-produktuak eskuratzeko hainbat irizpide sozial zehaztuko dugu atal honetan, batez ere LANeren funtsezko eskubideei dagokienez, laneko jantziarako eta barnealderako ehunetarako; neurri txikiagoan, Bidezko Merkataritza-erako baldintza-irizpideak eta ekitaldietarako ehun-artikuluak zehaztuko dira² (ikus «Elikadura eta vending zerbitzuak»).

¹ *Compra pública ética de ropa i tèxtils*. Xarxa per la compra pública ètica. 2005.

² Gaur egun Bidezko Merkataritzako irizpide zorrotzenak betetzen dituen artikuluak ez dago administrazio publikoan (laneko jantziak edo barnealdeko artikuluak). Horregatik, irizpide horiek ekitaldietarako ehun-produktuetan bakarrik ezarriko dira (elastikoak, poltsak, eta abar), horko eskaintza gehiago garatu baita.

41. KASUA: Arropa garbia kanpaina

Nazioartean bada ehungintza-industrian lan-kondizioak hobetzeko kanpaina bat: «Clean Clothes Campaign» (Arropa Garbia Kanpaina). Katalunian, Espainiako Arropa Garbia Kanpainari lotua, bada Erosketa Publiko Etikorako Kataluniako Sarea deritzon bat, Kataluniako Generalitateak eta bederatzi udalek osatua (Bartzelonakoak eta Gironakoak, besteak beste). Kanpaina horren bidez, ehun-produktuen erosketa publikoan irizpide etikoak erabiltzea bultzatzen da.

*Gehiago jakiteko, begiratu web honetan:
<http://www.ropalimpia.org> o <http://comprapublica.wordpress.com/>*

1.3. Nola jokatu

Ehun-produktuen fabrikazioari lotutako inpaktuak kontratazio publikoaren bidez murrizteko, hainbat neurri hartu behar da ingurumen- eta gizarte-eremuetan. Neurriak hauek dira:

- Produktu transgenikoen eta zuntz birziklatuz egindakoen ordez, nekazaritza ekologikoko edo ekoizpen integratuko zuntz naturalez egindako produktuen erosketa sustatzea.
- Substantzia arriskutsu eta/edo toxiko gutxiagorekin egindako produktuak eta ur- eta energia-kontsumo txikiagoko prozesuetan egindakoak erostea.
- Diseinu eta kolore neutroak aukeratzea, produktuen irudia zaharrituta ez gelditzeko, eta, beharrezkoa bada, beste osagarri batzuk erabiltzea nortasuna emateko.
- Ehun-produktuak egoki erabili eta zaintzeko ohiturak sustatzea, horien iraupena ziurtatzeko.
- Erabili gabeko produktuak kudeatzea, horiek berrerabiliz edo, erabili ezin badira, horien gaikako bilketa egin eta birziklatuz.
- Ekoizpen fase osoan eta hornitzaile-katean laneko funtsezko printzipioak (LANEak aitortutakoak) errespetatzeko exijitzea hornitzaileei, horien herrialdea edozein delarik ere.
- Merkatuan eskaintza egonez gero, ekitaldietarako produktueterako EROSTEN diren produktuek LANEren printzipioak ez ezik Bidezko Merkataritzari buruzko eskakizunak ere betetzea —Europako Legebiltzarraren 2005/2245(INI)— ebazpena, bidezko merkataritzari eta garapenari buruzkoa).



2. Jardunbide egokiak

2.1. Nola gutxitu kontsumoa

Ehun-produktuen kontsumoa murrizteko neurriak ezberdinak dira, ohiko erabilerarako produktua den (uniformeak edo barnealderako ehunak), edo noizbehinkakoa (ekitaldietarako osagarriak eta antzekoak).

Bigarren horien kasuan, eskaerak ekitaldi baterako badira (hitzaldia, kirol-ekitaldia, eta abar), partaide-kopuruari (izena emandakoei edo aurreikusitakoei) egokitu behar zaio kontsumoa. Askotan, eskaera-mota horiek egitean, eskaintzak egiten dituzte enpresek gehiago erosteko, kalkulua okerra gertatuz gero badaezpadako neurri gisara. Hala, bada, eskaera behar baino handiagoa izaten da, eta produktuak, berriz, ekitaldi jakin baterako direnez, ezin dira berrerabili. Kontsumoa murrizteko, garrantzitsua da halakoetan kalkuluei lotzea eta eskaintzei jaramonik ez egitea.

Bestalde, produktu horiek serigrafiatu edo apaindu egiten dira askotan (antolatzaileen logoarekin, ekitaldiaren izenburuarekin, dataekin...); elementu horiek direla eta, produktuak zaharkituta gelditzen dira ekitaldia amaitu ondoren, eta ezin dira berriro erabili. Beraz, ekitaldi bera maiz ospatzen bada, *hurrengo edizioetan erabiltzeko moduan diseinatu behar dira* elementuak, edizio horietako kontsumoa murrizteko. Horretarako, beharrezkoa da antolatzaileek pentsamoldea aldatzea; zaila da, baina beharrezkoa. Gainera, parte-hartzaileek ere errazago berrerabiliko dituzte (logotipoek ez baitute erabiltzeko gogorik pizten).

Ohiko erabilerarako produktuen kontsumoa murrizteko (laneko jantziak eta barnealderako ehunak), ekintza-ardatz hauek hartu behar dira kontuan:

1. *Jantzi eta ehunen balio-bizitza ahalik eta gehien luzatzea*, erosteko beharra murrizteko. Hau egiteko, *gutxieneko ezaugarri teknikoak* eskatu behar dira produktuen kalitateari eta erresistentziari dagokienez, baita horiek egoki eta kontuz erabili ere. Laneko jantzien ardura langileen gain baldin badago, *horiek egoki zaintzeko jarraibideak* ematea gomendatzen da (garbiketa-tenperatura altuak saihestea, edo lixibaren ordezturiztaile ez hain erasokorrak erabiltzea). Eginkizun hori enpresa baten esku baldin badago, hari eman behar zaio aipatutako informazioa, eta betetzen dela bermatu.
2. Erosten diren artikuluen aniztasuna *murriztea*, ahal den heinean. Horrela, kontratazio-prozesuaren administrazio-lana errazagoa izateaz gain, produktu-soberakinak (eskaera handiegia dela, neurri ezberdina dela...) hobeto aprobetxatzen dira.
3. *Ehun eta diseinu neutroak aukeratzea*. Zerbitzu edo administrazio baten kolore korporatiboa aldatuz gero, irudi berriari egokitzeko beharrezkoa izango da, agian, jantziak eta ehun-elementuak aldatzea. Halakoetan, hainbat produktu ordezkatu egiten dira, inolako justifikaziorik ez egon arren, ez ingurumen-ikuspegitik ez ekonomikotik. Beraz, ondorio horiek murrizteko, hobe da diseinu, ehun eta kolore neutroak dituzten produktuak hautatzea, eta irudi korporatiboa elementu xumeagoen bidez ematea (osagarrien bidez, esaterako).
4. *Benetako beharrak epe ertain eta luzera baloratu eta planifikatzea*, eskaera handiegirik ez egiteko (hurrengo atalean sakonago azaltzen da puntu hau) eta erosketa urgenteak saihesteko.

2.2. Nola jakin zein diren benetako beharrak: adierazleak

Beharrak ezagutzeko, bereizi egin behar ditugu, berriro ere, ohiko erabilerarako produktuak (laneko jantziak eta barnealderako ehunak) eta ekitaldietarako produktuak (elastikoak, poltsak, zorroak, zapiak, eta abar).

Lehenengoei dagokienez, alde zurretik emandako erabileren eta stocken araberakoak izango dira berriak erosteko beharrak. Hala, bada, egiazko kontsumoa ezagutu eta kontrolatzeko, produktuaren batez besteko bizitza (ahalik eta luzeena izan behar du) eta hura ordezkatzeko arazoak kalkulatu behar dira.

Bigarreni dagokienez, lehen aipatu bezala, parte-hartzaileen edo administrazioak horri buruz egindako kalkularen arabera egin behar dira erosketak. Neurri ezberdinetako elastikoak erosten badira, batez ere, garrantzitsua da hala egitea. Ahalik eta gehien doitu behar da kalkulua; horrela, arropa ez da ez txikiegia ez handiegia izango, eta, ondorioz, ez da sobratuko. Antzeko ekitaldiak antolatutuz erakundeei galdetzea lagungarria izan daiteke. Adierazle gisa, soberako produktuen portzentajea ebaluatu behar da; jantzien kasuan, neurri bakoitzeko soberrakinen portzentajea. Gainera, hurrengo ekitaldien antolaketan aurreikuspena egiteko balioko du informazio horrek.

Garrantzitsua da, halaber, ordezkatzeko produktuen prozesu, erabilera eta tratamenduaren berri izatea; hau da, jakitea zenbat produktu berrerabiliko den eta zenbat, hondakintzat hartuta, baztertuko den.

2.3. Zer eta nola erosten dut

Berrerabilpen-aukerak agortu eta zer erosi behar den aztertu ondoren, erosi beharrekoak zehaztuz izango dira, eta baldintza-agirietan hobeto zehaztuko da erosi beharrekoa.

Laneko jantziei eta barnealdeko ehunei dagokienez, iraunkortasun-irizpideak (kolorea, urraketarekiko erresistentzia, eta abar), eta neutraltasun estetikoa (garaian garaiko joeren barruan) zehaztea da garrantzitsua kontratatzerakoan, jantzien iraunkortasuna ahalik eta handiena izateko. Beste alderdi garrantzitsu bat eskaera-agiriak multzoka banatzea da, produktuaren arabera; ohiko jardunbidea da, eta eutsi egin beharko litzaioke. Horri esker, ingurumen-eragariak sartuz doaz pixkanaka, eta enpresa txikiek kontratu handiak eskuratzeko aukera dute.

Ekitaldietarako elementuei dagokienez (elastikoak, poltsak eta abar), erresistentzia-irizpideak ere hartu behar dira kontuan, produktuak berrerabili ahal izateko. Ekitaldietarako produktuetan, berriz, garrantzitsua da, lehen esan bezala, horien erabilpena murriztu dezaketen elementuak dekoraziotik kentzea edo murriztea (hala nola logoak edo izen nabarmenegiak).

Azken urteotan, hainbat enpresa espezializatu da uniformeen nahiz barnealdeko ehunen *leasing* edo *renting* zerbitzuan. Enpresa horiek ehun-produktuen kudeaketaz (garbitzea, lehortzea, eta abar) eta banaketaz arduratzen dira. Zerbitzu-mota horien ingurumen-egokitasuna edo egokitasunik eza ezberdina da enpresa batetik bestera: ingurumen-kudeaketaren eremuan zer neurri ezarri dituen, zer produktu hautatu duen (ehun-produktuak nahiz garbiketakoak) eta zer zainketa egiten duen. Beraz, zerbitzu-mota hori kontratatu nahi bada, ingurumen-irizpideak ezarri behar dira, besteak beste, jantziarako, makinarako, garbigarriarako edo garraiorako.



2.4. Nola kudeatu erabiltzen ez diren produktuak eta hondakinak

Dauden artikulua ordezkatzeko ehun-produktu berriak erosten badira, ordezkatutako en-daketa ere egin behar da. Altzariak baino maila apalagoan bada ere, multzo horretako pro-duktoak horien balio-bizitza amaitu baino lehen baztertzen dira (beharbada eginkizun jakin baterako amaitu da, baina ez beste batzuetarako). Hortaz, ahal den guztietan, horiek berrera-biltzea bultzatu behar da, hondakin bihurtu baino lehen (horrela, ehun-artikulu berrien eros-ka-gastuak eta inpaktuak aurreztuta, hondakin gutxiago sortuko da.

Horretarako, bi formula nagusi daude:

- Ondo dauden produktuen kudeaketa optimizatzea, eta, alderdi teknikoak aukera ematen duenean, Administrazioaren barruan berrerabiltzea. Horretarako, kudeaketa-sistema bateratua ezarri behar da, eta jantziak administrazioari itzuli, hark konpon-du edo tratatzeko. Ondoren, erakunde barruan berrerabiliko dira, lehengo erabilera berarekin edo beste batekin. Adibidez, toallak edo maindireak garbiketa-zapi bihur daitezke, sukalde edo tailerretarako.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo gizarteratze-erakundeetara eramatea eta haietan beharrezko tratamendua emanda, berriro merkaturatzeko edo baliabide gu-txiko gizarte-alorrei emateko. Nolanahi dela ere, komeni da ziurtatzea erakundearen jarduera etikoa eta irabazi-asmorik gabea dela.

Azkenik, berrerabili ezin diren artikulua zaharkituen (balio-bizitza amaituta) edo hondatu-en tratamendu egokia bermatu behar da. Sortutako hondakinen birziklapena eta tratamendua baimendutako kudeatzaileek egin behar dute, hirugarren sektoreko enpresek edo entitateek, ahal bada (irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo gizarteratze-enpresak).

42. KASUA: Berohi S. Coop.

2005aren hasieran, Berohi S.Coop. (2000n sortua, Cáritas eta Rezikleta S. Coop-en laguntzaz) eta Rezikleta S. Coop. bera, hondakinen bilketa-, tratamendu- eta balioztatze-zerbitzu integrala ematen hasi ziren EAEn. Rezikleta S. Coop.-ek ehun-hondakinen bilketa egiten du batez ere (hiriko edukiontzien bidez), eta Berohi S. Coop.-ek ondorengo ehun-tratamendua egiten d. Lana eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak egiten dute lan hori. Horretarako, hiru multzotan sailkatzen dira hondakinak, tratamenduaren arabera:

1. Ehunak higienizatu, modara egokitu eta etiketatu ondoren (Ekorropa marka-ekin), berrerabili egiten dira, Ekorropa dendetan banatuta edo beste herrialde batzuetara esportatuta, jantziak bigarren eskuko produktu gisa aprobetxatu ahal izateko.
2. Produktuek lehengo eginkizun berarekin berrerabiltzeko nahikoa kalitaterik ez dutenean, bestelako produktu bihurtzen dituzte, hala nola industriako gar-biketa-zapiak.
3. Berrerabili edo eraldatu ezin diren hondakinen frakzioa (hondar-frakzio izene-koa) zaborte-giaren bidez kudeatzen da, ez baitago beste tratamendu-biderik. Bilketa osoaren % 20 inguru izaten da frakzio hori.

2006an Berohi-Rezikletak eta GAIKER-IK4 zentro teknologikoak lankidetzan jar-dun zuten, hondar-frakzioari irtenbide iraunkorra emateko.

3. Kontuan hartu beharreko ingurumen eta teknika alderdiak

Hauek dira ehun-produktuek eta oinetakoek sortzen dituzten inpaktuak gutxitzeko kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak.

3.1. Zuntzen jatorria

Ehun-zuntzak naturalak (animalia, landare edo mineraletatik eratorriak) edo sintetikoak (gehienbat petroliotik eratorritako osagai kimikoetatik sortuak) izan daitezke. Horiek sortzeko erabiltzen diren lehengaiak (kotoia, lihoa, petrolio eta abar) eskuratzeko eta ehun-zuntz bihurtzeko tratamenduak inpaktuak eragiten dituzte.

Landare-zuntzek osasunean eta ingurumenean eragiten duten kaltea murrizteko, nekazaritza ekologikoko zuntzen erabilera bultzatu behar da. Monolaborantza zabaletan oinarritutako landare-ekoizpenean ur- eta energia-kontsumoa handiak dira, eta pestizida zein ongariaren erabilera intentsiboa egiten da. Nekazaritza ekologikoaren bidez, inpaktu horiek nabarmen murrizten dira.

Bestalde, zuntz birziklatuzko produktuen bidez, landare-zuntzen eta zuntz sintetikoen inpaktuak erabat murriztea lortzen da. Kotoiaren kasuan, birziklatutako zuntzak kontsumitu aurrekoak dira, hau da, lantegian ekoiztutako zuntzen fabrikazio-hondarrak, zuntz berriak egiteko berreskura daitezkeenak (heterogeneoagoak izaten dira, betiere). Zuntz sintetikoen kasuan, ohikoena poliesterra birziklatzea da (PET), bai jantziarena bai ekoizpen-hondarrak (zuntz berriak egiteko berriz prozesatzen dira). Bi kasuetan, onurak berdinak dira: zuntz birjinen kontsumoa murrizten da eta hondakin gutxiago sortzen.

3.2. Ekoizpen-fasea

Prozesu osoan —harigintzan, ehungintzan, tindaketan, akaberan eta jantzigintzan—, osasunarentzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak diren produktu kimikoak erabiltzen dira, hala nola tindagaiak eta beste produktu lagungarri batzuk; gas poluitzaileak edo toxikoak emititzen dira (konposatu organiko lurrunkorrak, KOL); halaber, ur- eta energia-kantitate handiak kontsumitzen dira, eta, horiek atmosferara emititzeaz gain, hondakin-ur guztiz toxikoak sortzen dira; gainera, inpaktuak eragiten dituzte produktu horiek, energia eta ura eskuratzeko eta ekoizteak.

Zenbait substantzia debekatu egin dituzte nazioartean eta Europan, eta isuri- nahiz emisio-mugak ere ezarri dira Europako eta munduko beste hainbat herrialdeetan. Hala ere, ekoizpena deslokalizatzen den herrialde askotan araudia ez da beti betetzen, eta halakorik ez dago. Hortaz, kontratazio publikoko prozesuetan airearen eta uraren poluzio-mugak betetzea exijitu behar da, baita ehunen eta ehun-produktuen ekoizpenean zenbait substantzia baztertea ere. Horretarako, kontuan hartu behar dira ekoizpen-zentroetan erabilitako produktu kimikoak eta ingurumen-kudeaketarako neurriak. Hala ere, zehaztapen horiek nekez egiaztatzea daiteke ziurtagiri independenterik gabe.

3.3. Azken produktuko substantzia kaltegarriak

Substantzia kaltegarriak ez dira lantegietan eta horien isurietan bakarrik agertzen. Azken produktuan ere substantzia kaltegarrien hondarrak egon daitezke, bai ekoizpen-faseetan ezabatu ez direlako, bai produktuaren akaberan erantsitako substantziak direlako. Substantzia horiek



kaltegarriak izan daitezke osasunarentzat eta ingurumenarentzat, eta, beraz, pestizida, formaldehido eta metal astun batzuk —besteak beste— mugatzeko edo debekatzeko irizpideak ezarri beharra dago.

3.4. Erabilpenaren egokitasuna eta iraunkortasuna

Ehun-produktuen kalitatea eta iraunkortasuna ziurtatzea lehenetsi behar da, produktu horien kontsumoa murrizteko eta horiei lotutako inpakturik berriro ez izateko. Hala, bada, ehun-produktuen edo oinetakoen iraunkortasuna ziurtatzeko, probak egin behar dira: koloreen sendotasuna (garbiketarekin, argiarekin, izerdiarekin), igurtzi heze eta lehorrarekiko erresistentzia, garbiketak eta lehorketak eragindako neurri-aldaketak, tolesdurarekiko eta urradurarekiko oinetako--bularraren eta zolaren erresistentzia. Hortaz, iraunkortasun-parametro horietan gutxieneko batzuk exijitu behar dira.

Gainera, lehen aipatu bezala, produktuekin batera jarraibideak eskaini behar zaizkie erabiltzaileei, produktua egoki erabili eta zain dezaten eta horien balio-bizitza luzatzeko.

Bestalde, erosi beharreko produktuek erabiltzeko egokitasun-eskakizunak betetzen dituztela ziurtatu behar da. Babes-ekipoen kasuan, adibidez, 773/1997 Dekretuan eta horiei buruzko araudian zehaztutakoa bete behar da, dagokion erabilerarako gai direla bermatzeko.

Horretan ere (kasu askotan ikusi denez) erosketa publiko berdea tresna egokia da erosketa eta kontratazio-prozesuak hobetzeko.

3.5. Bilgarrien ezaugarriak eta kudeaketa

Gainerako produktu-multzoetan bezala, bilgarriak dira produktu-hornikuntzaren ingurumen-alderdietako bat.

Oro har, hauek dira bilgarrietatik eratorritako inpaktuak minimizatzeko estrategiak: Bilgarriak murriztea, bilgarri eta ontzi berrerabilgarriak sustatuz; bilgarrien materialen aniztasuna murriztea, sailkapena eta birziklapena errazteko; plastiko halogenaturik gabeko materialak erabiltzea; eta erabilitako material birziklatuaren kantitatea —plastikoa nahiz kartoia— handia izatea.

3.6. Irizpide sozialak

Kapituluaren hasieran esan bezala, ehun-ekoizpena beste herrialde batzuetara deslokalizatzen ari da, eta, horietan, ingurumen- eta gizarte-legeria bigunagoa da edo legeak betearazteko baliabide gutxiago dago. Ondorioz, askotan ez dira lanerako gutxieneko baldintza duinak errespetatzen. Irabazi-asmorik gabeko erakunde ugari salatuta dute egoera hori, kanpaina mediatiko eta zuzeneko ekintzen bidez.

Gatazka-gai nagusia Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) funtsezko itunak dira: askatasun sindikalari eta sindikatze eskubidea babesteari buruzkoa (87 zk.), sindikatze eta negoziazio kolektiborako eskubideari buruzkoa (98 zk.), lan behartuari buruzkoa (29 zk.), lan behartua deuseztatzeari buruzkoa (105 zk.), gutxieneko adinari buruzkoa (138 zk.), haurren lan-motarik okerrenei buruzkoa (182 zk.), ordainketa-berdintasunari buruzkoa (100 zk.) eta diskriminazioari buruzkoa, lanari eta lanbideari dagokienez (111 zk.). Espainiak, LANEko kide den aldetik, berretsi egin ditu hitzarmen hauek, eta, ondorioz, Laneko Printzipio eta Funtsezko Eskubideak errespetatu eta bete daitezten sustatu behar du. Hala, bada, Laneko Printzipio eta Funtsezko Eskubideen babesean eraginkor izan nahi duen administrazio publikoak horretarako aukera du, kontratazio publikoaren bidez eta kontratu publikoetan eskubide horiek babesten dituzten irizpide sozialak sartuz.

Hala ere, enpresek hornitzaile-katearen informazio guztia oraindik eskuratu ez dutenez, gomendio horiek tinko baina pixkanaka gauzatu behar dira, hornitutako produktuen jatorria zein den jakiteko. Ondoren, LANEren arauak betetzeko asmoen adierazpena exijitu behar dute; gero, jokabide-kodea (ikus hurrengo atala) eskaini behar du enpresa hornitzaileak, eta, azkenik, kanpoko erakunde independente batek (edo sistema bidez) kode horiek egiaztatu egin behar ditu.

Alderdi sozialak ez dira soilik LANEren hitzarmenen araberakoak. Badira beste irizpide batzuk komunitate ekoizleen baldintzak hobetzeko, hala nola bidezko prezioa, zati bat aldeztatik ordaintzea, harreman egonkorra, eta abar. Bidezko merkataritzako produktuen bidez (bai ziurtagiria dutenak bai onartutako bidezko merkataritzako erakundeek ekarriak), ekoizpenean gutxieneko irizpide sozialen errespetua bermatzen da. Administrazioak bidezko merkataritzako produktu-mota gutxi eros dezake, ordea, eta produktu horiek ekitaldietarako elementuak eta osagarriak izaten dira gehienbat (poltsak, elastikoak, zapiak...).

43. KASUA: BBK

Bilbao Bizkaia Kutzak (BBK), bere gizarte-ekintzaren bidez, bidezko eta elkartzunezko merkataritza-jarduerak bultzatu eta laguntzea du helburu.

Helburu hori lortzeko lan-ildoak, besteak beste, BBK-k erositako produktuetan gizarte-klausulak sartzea da, hala nola bidezko merkataritzako produktuak erostea. 2005ean BBK k Pagasarrira antolatutako ibilaldian parte hartu zutenentzat bidezko merkataritzako 8.000 motxila erostea izan zen ekintza horietako bat.



4. Ingurumen eta gizarte ziurtagiriak

Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen (EKPB) eskuliburuan ingurumen-alderdiak dira nagusi, eta, beraz, ehun-produktuetarako *ingurumen-ekoetiketa* nagusiak aurkezten dizkizuegu hemen, bai ofizialak (administrazio publikoena), bai onespenez zabala duten pribatuak. Hauek dira:

	ÖKO-TEX ¹	EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA	BELTXARGA ZURIA (SVANEN)
			
LANEKO JANTZIAK	●	●	●
OINETAKOAK	●	●	
ETXEKO ARROPAK	●	●	●
OSAGARRIAK	●	●	●

¹ Ehungintzaren ekologia testatzeko eta ikertzeko nazioarteko elkartearena.

Merkatuan Öko-tex Standard 100 erabiltzen da gehien ehun-produktuak ziurtatzeko. Europako Etiketatze Ekologikoa eta Beltxarga Zuria publikoak dira, eta Öko-tex, berriz, sektorearen ekimena da. Bestalde, azken produktuari bakarrik dagozkion irizpideak sartzen ditu (substantzia toxikorik ezari buruzkoak). Besteek, produktuaren ekoizpen-fase osoari buruzkoak ezartzen dituzte. Alderdi hori hobetzeko, elkarteak Öko-tex 1000 estandarra sortu du, ekoizpenari buruzko ingurumen- eta gizarte-neurriei buruzkoa. Ingurumena kudeatzeko sistema baten antzekoa da, eta dagoeneko fabrikatzaile batzuek eskuratu dute Öko-tex 100+ ziurtagiria (100 eta 1000 estandarrak betetzeari buruzkoa).

Bestalde, Espainiako AITEX institutuak sustatutako Made in Green ziurtagiriak ingurumen-irizpideak (azken produktuari eta ekoizpen-prozesuari buruzkoak) eta irizpide sozialak zehazten ditu. Ziurtagiri hori eskuratzeko, hiru eremutako irizpideak bete behar dira: substantzia kaltegarriarik eza (Öko-tex edo Europako Etiketa Ekologikoaren bidez ziurtatzen da); ekoizpen-fase osoan ingurumena zaintzea (harigintzan, jantzigintzan eta banaketan (Öko-tex 1000, EMAS edo ISO 14001-en bidez ziurtatzen da); eta zenbait irizpide sozial betetzea (SA 8000 jokabide-kodeaz edo Fair Wear Foundation-en bidez ziurtatzen da).

Nekazaritza ekologikoko landare-zuntzei dagokienez (organic, ingelesez), hainbat ziurtapen daude nekazaritza ekologikoko estandarrak betetzen direla bermatzeko: Europako Batasuneko 2092/91 zk.-dun EEE araudia (2008ko abenduaren 31 arte) eta 834/2007 zk.-dun EEE araudia (2009ko urtarrilaren 1etik aurrera), AEBko Nekazaritza Departamentua-USDARENak (*National Organic Program*-en arabera) edo nazioarteko IFOAM erakundearena.





Organic Exchange ziurtagiria kotoiarentzat bakarrik erabiltzen da. Azken produktuaren baitako kotoiak jatorri ekologikoa duela bermatzen du babes-kate osoan, lehen aipatutako estandarren arabera. Etiketari, azken produktuak duen kotoi ekologikoaren portzentajea zehaztu behar da.

Global Organic Textile Standard (GOTS) nekazaritza ekologikoko zuntz naturalez egindako produktuen ziurtapena da (nazioarteko edo herrialde bakoitzeko estandarren arabera); zuntzaren

tratamenduari buruzko irizpideak eta produktuen fabrikazioari buruzkoak ere ezartzen ditu. Zuntz ekologikoen edukia bi mailatan banatzen da, ondorengo taulan ikus daitekeenez.

Beltxarga Zuriaren ekoetiketak ere erabilitako landare-zuntzak nekazaritza ekologikotik datozela bermatzen du, Europako estandarren edo baliokideen arabera. Europako Etiketa Ekologikoak, berriz, ez du bermatzen zuntz ekologikoaren gutxieneko edukirik, baina, erabiltzen bada, Europako 2092/91 eta n.º 834/2007 estandarrak bete behar ditu.

Hauk dira ziurtapen guztietan egin beharreko gutxieneko zehaztapenak:

EKOETIKETA	LOGO OFIZIALA	NEKAZARITZA EKOLOGIKOKO LANDARE-ZUNTZA	LANDARE-ZUNTZA EDO BIRZIKLATUTAKO ZUNTZ SINTETIKOA ¹
EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA		Ez du gutxienekorik zehazten	Ez du gutxieneko edo gehieneko baliorik zehazten
BELTXARGA ZURIA (SVANEN)		Produktuaren landare-zuntz guztia nekazaritza ekologikokoa da	Ez du gutxieneko edo gehieneko baliorik zehazten
GOTS		Organic > produktuaren zuntz guztien % 95 baino gehiago nekazaritza ekologikokoa da	% 5raino
		Made with X% organic materials > produktuaren zuntz guztien % 70 baino gehiago nekazaritza ekologikokoa da	% 10eraino; galtzerdi, elastiko eta kirol-jantzietan % 25rainokoa izan daiteke
ORGANIC EXCHANGE		Made with [100%] organically grown cotton Produktuaren kotoizko ehuna nekazaritza ekologikokoa da % 100ean ²	% 0 kotoizko ehunean
		Made with X% organically grown cotton Produktuaren kotoizko ehuna nekazaritza ekologikokoa da gutxienez % 5ean ³	Ez du gutxieneko edo gehieneko baliorik zehazten
¹ Ehungintza-industriako ebakinetatik, jantzigintzatik edo kontsumitu ondoko hondakinetatik datorren zuntza.			
² Produktua kotoiaz bakarrik egin bada, % 100 nekazaritza ekologikokoa izan behar da. Produktua zuntz edo material ezberdinez egin bada (adb., zapatilen kanpoaldea kotoizkoa izan daiteke, barrualdea poliuretanozkoa eta zola, berriz, gomazkoa), kotoi organikoaren % 100eko adierazlea kotoizko ehunari bakarrik ezarri behar zaio, ez produktu osoari.			
³ Kasu honetan, nekazaritza ekologikoko kotoi-zuntzez osatuta egon behar du ehunak (= % 5), eta gainerakoa ohiko kotoiaz edo beste zuntz batzuek osatua izan daiteke (artilera, poliesterrea, eta abar).			

Ehuna nekazaritza ekologikokoa dela enpresa egiaztatzaile batek ziurtatzen badu (esaterako, EcoCert, KRAV, SKAL, IMO, eta abar), begiratu egin behar da ziurtagirian aipatutako estandarrik azaltzen diren eta informazio nahikoa edo dokumentazio osagarria eransten den azken produktuko zuntz ekologikoen portzentajeaz (botoiak, kremailerak, eta antzekoak izan ezik).



Hemen aurkeztutako produktuari buruzko ingurumen-ziurtagiriez gain, badira ziurtagiri *sozialak* ere, produktu nahiz enpresentzat.

Enpresentzat, Erantzukizun Sozial Korporatiboari (ESK) buruzko ekimen ugari sortu da azken urteotan. Enpresek kudeaketa-politikak eta funtzionamenduari buruzkoak garatzea da ESK; politika horietan, alderdi ekonomikoa ez ezik gizarte- eta ingurumen-alderdia ere jorratzen dira, enpresaren jarduera produktibo eta ekonomikoa zati baitira. Ehungintzaren alorrean, politika horiek ekoizpen-kate osoan ezarri behar dira, balioa izango badute (azpikontratetan ere bai); bestalde, horien ezarpenak eta lortutako emaitzei buruzko informazioak gardenak izan behar dute, eta kanpoko enpresa independente batek kontrolatzeko aukera eman behar da. Eremu sozialean, LANEren funtsezko konbentzioak bete beharri beste elementu zorrotzago batzuk gehitzen zaizkio.

Hain zuzen ere, kode etikoak edo jarrera-kodeak ezartzen dira, hots, langileekin, gizartearekin eta ingurumenarekin enpresak dituen konpromisoak jasotzen dituzten agiriak. Hala ere, kode horiek edo ESK politikak alferrik dira, egiaztatu eta kontrolatzen ez badira. Kode horien egiaztapena erakunde independente baten bidez edo egiaztapen eta ziurtapen sozialerako alde anitzeko ekimenen bidez egin daiteke. Kasu horietan, enpresek bat egiten dute ekimen horiekin, eta alde anitzeko ekimenak berak edo auditore independenteek (ekimenari lotutakoak) egiaztatzen dituzte horien ezarpena eta emaitzak. Ekimen horien adibide dira, besteak beste, *Fair Ware Foundation*, *Ethical Trading Initiative*, *Fair Labour Association* edo SA8000.

Beraz, enpresek gutxienez baldintza sozialak betetzen dituztela ziurtatzeko, Öko-tex 1000 edo aipatutako alde anitzeko sistemetakoa bat erabil daiteke (SA8000, *Fair Ware Foundation*, etc.). Enpresek bere gain hartutako eta egiaztatutako jarrera-kodeak ere onartu behar dira, ordea, sistema horiek borondatezkoak baitira. Hauek dira, besteak beste, ziurtagiriaren logotipoak:



Kontuan izan bereizgarri horiek enpresetarako direla, ez produktuetarako.

Produktuetarako, Made in Green eta Öko-tex 100+ dira irizpide sozialak dituzten ziurtagiriak, baita Bidezko Merkataritzako ziurtagiriak ere (hauek eskakizun gehiago dituzte). Bidezko Merkataritzako produktuetarako, nazioartean onartutako bi berme-sistema daude gaur egun: IFAT marka FLO zigilua (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Catering eta Vending). Orain arte, produktuen eskaintza zabaldu bitartean, ekitaldietarako produktuetarako eta osagarrietarako bakarrik erabiltzen dira.



5. Merkatuaren egoera: aukeran dagoen eskaintza

Azpimarratzekoa da ehungintzak Espainian duen garrantzia, Europako bosgarren ekoizlea baita (ekoizpenaren % 7,5), Alemania, Erresuma Batua, Italia eta Frantziaren ondotik.

6.100 enpresa baino gehiago daude sektorean, ETEak gehienak. 206.000 lagun inguruk egiten dute lan horietan, % 56k jantzigintzan eta % 44k ehungintzan³. Ehungintza Espainia osoan dagoen arren, Katalunian eta Valentzian daude enpresa gehienak. EAEn, ehungintza ez da sektore handia (Espainiako ekoizpenaren % 2,5 besterik ez)⁴.

Azken hamarkadetan ehungintza eta jantzigintzako enpresak espezializatu egin dira, eta garapen bidean dauden herrialdeetan egin da ekoizpenaren azpikontratazioa (lan- zein ingurumen-eskakizunak txikiagoak dira haietan). Joera hori are nabarmenagoa da kale-jantzien eta etxeko-arroparen alorrean, baina berariazko arroparen sektorean (laneko uniformeena, adibidez) ere gertatzen hasi da, motelago bada ere.

Ekoizpen-prozesua hainbeste zatitzearen ondorioz, enpresa gutxi dituzte produktu ekoetiketatatuak (Oekotext estandararekin izan ezik), betetzen dituzte Bidezko Merkataritzako irizpideak edo/eta eskaintzen dituzte berme sozialak ekoizpen-kate osoan. GKEek presioa egin dute zenbait kanpainaren bidez —«Arropa Garbia Kanpaina» (Clean Cloth Campaign) edo «Toxikorik gabeko moda», adibidez—; horri esker, eta hedabideen laguntzaz, sektorea mugiarazten ari dira, jantzigintzan, batez ere. Laneko arropagintza, hala ere, atzeratuta dago ESKren inguruko neurriei dagokienez, iritzi publikoak ez dituelako hornitzaile horiek ezagutzen, ziurrenik. Horietan, kanpainen eragina ez da hain handia.

Ekitaldi eta hitzaldietarako osagarri eta gehigarriei dagokienez (elastikoak, poltsak, motxilak...), Bidezko Merkataritzako eta Ekonomia Sozialeko inportatzaile ugari dago. www.comerciojusto.org web orrian Espainiako Bidezko Merkataritzako erakunde nagusien zerrenda ageri da. Hala ere, beste hainbat produktutarako (arropa teknikoa edo etxeko arropa), ez dago Bidezko Merkataritzako produkturik, eta komeni da ohiko ekoizleek pixkanaka aintzat hartzea ESK.

Ingurumen-irizpideak dituzten laneko arropa eta oinetakoen eskaintzari dagokionez, enpresa hauek ditugu Espainian:

- Lan eta babes-arroparako berariazko ehuna ekoizten duten bost enpresa daude, Ökotex ziurtagiria dutenak (100 inguru daude munduan).
- Lan- eta babes-arroparako enpresa batek dauka Öko-tex ziurtagiria (38 inguru daude munduan), batek dauka Europako Etiketa Ekologikoa eta beste batek Made in Green ziurtagiria.

Gai sozialei dagokienez, Espainian bada laneko arropa ekoizten duen enpresa garrantzitsu bat, portaera-kodea duena. Horren bidez, herrialde ekoizleetan (Asian, batez ere) lan-kondizioak errespetatzea bermatzen da, LANEren eskakizunen arabera. Hala ere, enpresaren esku dago irizpide horiek betetzen diren ikuskatzea.

Barnealdeko arropak egiten dituzten enpresak gehiago dira, bai Espainian bai nazioartean, horietako batzuk etxeko arropagintzan jarduten badira ere administraziorako baino.

³ www.cityc.es

⁴ Ehungintza eta Jantzigintzaren Industria Behatokiaren II Jardunaldiaren ondorioak (2007ko uztailaren 17a, Bartzelona).



IHOBEren web orrian www.productosostenible.net daude ekoetiketak edo bestelako ingurumen-bereizgarriak dituzten enpresak.

Aipatutakoak gorabehera, kontratazioa, oro har, *enpresa banatzaileen* bidez egiten denez, produktuen eta enpresa ekoizleen ingurumen —eta gizarte— ezaugarrien berri izan behar dute horiek, eta eskatutako egiaztagiri guztiak eskura izan behar dituzte. Hori, askotan, ez da egiten, ordea. Jakinaren gainean egon daitezen, eskaintzak aurkezteko epea zabaltea eta informazio-saioak antolatzea gomendatzen da, ingurumen- eta gizarte-irizpideei eta egiaztapena egiteko aurkeztu behar diren ziurtagiriei zein dokumentazioari buruzko zalantzak argitzeko.



6. Ingurumen irizpideak

6.1. Prozedura irekiz eta lehiaketa bidezko esleipenez kontratatzeko irizpideak

Kontratazio-modu horretarako proposatzen ditugun irizpideak lan honekin batera aurkezten dugun CDan aurkituko dituzu. Kapitulu honetan irizpideak proposatzen ditugu laneko arroparako (oinetakoak eta etxeako arropa barne) eta ekitaldietarako ehun-produktuetarako. Gainera, hiru eskakizun-maila zehaztu dira horietako bakoitzean: oinarrizko maila, aurreratua eta bikaintasun-maila.

Administrazioak maila bakoitzerako dituen behar eta eskakizunetara hobekien egokitzen den eskakizun-maila zehaztu ondoren, ingurumen-irizpideak ezagutzeaz aparte, esleipenerako irizpideak eta eskaintza teknikoaren edukiak aurkituko dituzu. Eskaintzaileek informazioa aurkezteko moduari buruzko azken atal horrek eskatutako informazioa errazago biltzeko balio du.

Kapitulu honek, amaitzeko, hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda eskaintzen du. Zerrenda hori CDan ere aurkituko duzu, eta baldintza teknikoen agiriari berari ere erantsiko zaio, proposatutako ingurumen-irizpide bakoitza bete den nola frogatu edo egiaztatu azaltzen duen informazioa baitu.

6.2. Prozedura negoziaturako irizpideak

Prozedura negoziatua bada, prozedura irekiko irizpide berak erabiltzea proposatzen da.

Hala ere, kontratazio-prozesura gonbidatuko diren enpresen hautaketa egiteko, kontuan hartuko da banatzen dituzten ehun-produktuen fabrikatzaileek ingurumen-kudeaketako sistemak dituzten, lantegietan eta hornitzaile-katean jokabide sozialerako kodeak dituzten, eta/edo produktuak ekoetiketatuak, ekodiseinatuak edo gizarte-etiketadunak diren.

6.3. Zuzeneko erosketarako irizpideak

Ingurumena eta gizarte errespetatzen duten produktuak erosteko erarik errazena da horiek ekoetiketa ofizialetako bat izatea (4 atalean aipatutakoak).

Beste aukera bat da ingurumen- eta/edo gizarte-kudeaketako sistemak dituzten fabrikatzaileen produktuak aukeratzea. Aukera horrekin ez da bermatzen, ingurumenari dagokionez, produktuak hobeak izatea, baina bai horiek lege-eskakizunen arabera eta ingurumen- eta/edo gizarte-babeserako neurriak erabiliz fabrikatzea.